

B

BARREN

TOKIKOM



Garai bateko
jaien usainean

TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Txarangaren kalejira amaitu ondoren, 17:00etan, Sigmako aparkalekuan

MENUA:

- Patatak errioxar erara
- Oilasko-izter errea osagarriekin
- Bizkotxo bustia esne-gainarekin

20 €

18 €

Elgoibarko
Izarrako
Bazkideak

**TXIKI EGUNERAKO
KAMISETAK SALGAI!**

BARRENen bulegoan

**10€
(Bazkideek 9€)**

Ez duzula izena eman oraindik?
Uztailaren 24an amaituko da izena emateko epea!
Azken egunak! Animatu! primeran pasatuko dugu!

Izenematea **BARREN** astekarian edo
Internet bidez egin behar da
(www.elgoiBARREN.net)



Txikixan haundi



ELGOIBARKO IZARRA
Buzkaltzaileen Topagunea

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



**INFORMA ZAITEZ! AUTOKO AZTERKETA TEORIKOA 17 URTEREKIN!
IKASTARO TRINKOAK!**



ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO TEORIKAKO
IKASTARO TRINKOAK**

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



Esti Gonzalez

Kurtso bukaera hau nolabait aldapa gora egiten ari zaidan honetan gure txori beltz kontu hauen txanda tokatu zaigu, Miren. Eta burua gai astunez beteta dudaren ondorioz-edo, gai arinak besterik ez zaizkit gogora etortzen. Guztietan

lehena: oporrak. Bai, hortxe atarian dugu oporraldia eta oporretarako prestakuntzak nolabait atseginagoak egiten ditu kurtso bukaerako azken egun nekagarri hauek. Aspaldiiko partez abuztuan egun dexente izango ditugu familian elkarrekin igarotzeko eta irrikitan gaude barraskiloak bagina bezala kanpina hartu eta Mendarotik kanpo hainbat egun igarotzeko. Komunikazioa eta teknologia aurrerakoiak leku guztietan eskaintzen diren garai hauetan, desiatzen egoten naiz ni koberturarik gabeko lekuren bat aurkitzeko. Mundutik aparte, elkarrekin, urte guztian zehar egin gabe geratu zaizkigun gauzak egin ahal izateko eta elkarrekin gozatzeko.

“Desiatzen egoten naiz ni koberturarik gabeko lekuren bat aurkitzeko udan”

Bai, aurten gogo handia daukat, Miren. Gorputza eguzkitako kremarekin lohitu, bizikleta gainean jarri eta parajeaz eta konpainiaz gozatu pasiarak egiteko. Bukaerarik gabeko hondartzetan, ur ertzean, kontu kontari ibili eta ondoren eguzkia itsaso magalean nola oheratzen den ikusteko. Abuztuko gauetan hain ikusgarri diren izarrei desioak eskatuz gure sekretutxoak partekatzeko. Lasaitasunaz disfrutatuta eta gozatzeko. Erlojua kendu eta gure gorputzak denbora eta erritmoa markatzeko. Goizeroko iratzargailuaren soinu desatsegina txorien txioaz trukatzeko. Abenturaxo berriak bizitzeko. Leku eta jende berria ezagutzuz zerbait ikasteko. Gauza txikiak, badakizu. Egunerokotasunean aurkitzen zailak diren gauzatxo horiek, alajaina.

Badirudi uda garaiko garagardo anuntzio baten bizipenak espero ditudala aurtengo udarako. Eta zuk Miren, ze asmo duzu?



Miren Vives



Ederra galdera, Esti. Asmoak, usteak ez bezala, proportzioz kanpokoak: urtero bezala udara luzerako asmo asko eta asti gutxi! Izan ere, ondo dakizu ez dela erraza egutegiak borbiltzea eta aurten erabat poliedrikoa gelditu zaizu. Lana eta oporraldiak uztartzea inoiz ez da erraza izan, baina gauden garai berezi honetan egonda, ezin kexatuko gara!

Hala ere, lasai hartuko dugu, udarak eskaintzen digun patxada nagi horren eraginpean, sandaliak eta galtza motzak soinean dituzula ezer ezin baita larriegia izan. Oraingoan egitea tokatu zaigun lana polita da, parte handi bat bulegotik kanpo egin beharrekoa. Beraz txangoak ziurtatuta ditugunez horiei opor itxura ematea tokatuko zaigu: nolabaiteko “opor-planta” egingo dugu. Ea umeak ez diren iruzurraz konturatzen.

“Badaude gure herrietan egunerokoak ezkututzen dizkigun toki eta aukera bereziak”

Baina ez dut zu engainatzeko asmorik, nik ere oporrekin egingo dut amets, “benetako oporrekin”: Almeriako hondartza hutsekin, Siracusa-kaleekin edo eta Miletoko harri zaharrekin. Baina bitartean Mutrikuko arrapalan umeek salto nola egiten duten ikusiz gozatuko dut. Edo eta Lasturrera joango naiz deskonektatzera, agian aurkituko baitut 3G gabeko txokorik. Izan ere, badaude gure herrietan turista begiekin soilik ikus ditzakegun gauzak, egunerokotasunak ezkututzen dizkigun toki eta aukera bereziak. Opor-jarrerak gauza horiek aurkitzen lagun gaitzake, oporraldiaren ondoren errealitate indarberrituta itzultzeko, horixe baita oporren helburua ezta? Errealitate gordina ala erreari ikuspegi eta kemen berriaz heldu eta aurrera egitea.

Beno, ikus dezakezunez teoria badakit. Ea praktikara eramaterik lortzen dudana. Ondo pasa oporrak eta bidali postal bat, horretarako ez daukazu konektatua egon beharrik eta!



SARGOATEKO ERROMERIA 2014

UZTAILAK 27, IGANDEA

- * 11:00etan, meza.
- * Ondoren, salda eta txorizo banaketa.
- * Jarraian, bertsolariak: Narbaiza eta Meabebasterretxea.
- * 12:30ean, aizkolariak: Hodei Ezpeleta eta Ioritz Gisasola (Zelai III) gazteak. Ekitaldia Xabier Arrizabalaga eta Ekain Iturralde trikitilariak girotuko dute.

ANTOLATZAILEAK: Sallobenteko Jai Batzordea • Debemen • Elgoibarko Izarra • Elgoibarko Udala

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikizunak.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Majalen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaiola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen **IRITZIA** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikizunak. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Giza kateko argazkiak behar ditugu

Kaixo, lagun! Ekainaren 8an Euskal Herria zeharkatu zuen giza kate erraldoiaren kate-begi bat izan zinen, ezta? Lagun, senide edo ezagunen bati argazkiren bat egingo zenion, eta ziur asko han-hemen zabalduko zenuen. Elgoibarko Gure Esku Dago taldeak horiek guztiak bildu nahi ditu, oroigarri gisa eta hurrengo ekitaldietan erabili ahal izateko. Lagunduko diguzu guztiak biltzen? Bidali zure argazkia helbide honetara: elgoibarged@gmail.com.

Eskerrik asko!

Gure Esku Dago Elgoibar ☪

Nesken arteko pala txapelketa

Amaitu da nesken arteko pala txapelketa, eta antolakuntzatik txapelketaren balorazio oso positiboa egiten dugu. Hurrengo urtera begira gauza batzuk hobetu daitezkeen arren, txapelketa oso ondo joan da, giro bikainean. Oso ondo dakigu horrelako gauzek aurrera egin dezaten esku asko behar izaten direla eta guri ez zaigu horrelakorik falta izan! Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu eta antolaketan lagundu dutenei, baita ere momentu ezberdinetan laguntzeko prest agertu diren guztiei. Eskerrik asko, eta hurrengo urtean ere plazan ikusiko gara!

Aldi berean, jakinarazi nahi dizuegu irailetik aurrera pala txapelketa mixtoa –emakume eta gizonetako batek osatutako bikoteak– hasiko dela. Parte hartu nahi duenak Iturri tabernan eman dezake izena.

Iturri taberna ☪

Zuek eztabaidan ari zareten bitartean:

Gutun irekia Elgoibarko alderdi politiko guztiei. Kulturaz hitz egiten saiatuko naiz, eta neure burua aurkeztuz hasiko naiz. 25 urte egin nituen Ongarri Zine Klubean, eta neu izan nintzen Ongarri Zine Kluba bera eta Aire Libreko Zinea sortu eta bultzatu beharra ikusi zuena.

30 urte baino gehiago egin ditut kultur arloan lanean. Besteak beste, pilotaren inguruko liburua, Soka Dantzaren ingurukoa eta hainbat erakusketak egin ditut (Bartzelonan, Gernikako Euskal Herria museoan, Nafarroako Unibertsitatean...). Nire curriculumean kulturari lotutako lan ugari ageri dira, baina gaur ez nator niri buruz hitz egitera, baizik eta K larridun kulturaz eta %21eko BEZaz.

Aire Libreko Zinearen arduradun gisa, hainbat galdera egin nahi dizkizuet:

Zer egingo zenukete zuek Udalekoak Zine Klubaren egoitzan indarrez sartu, atea bota, Aire Libreko Zinea emateko makinaria eraman eta plazan zinea eskaintzen hasiko balira, esanez Kulturara Sailak antolatzen duela hori?

Zer egingo zenukete zuek liburu bat argitaratu eta izen handiko hainbat erakusketa egin eta Kultura Saitetik dei bakar bat ere jasoko ez bazenute?

Zer egingo zenukete zuek ordezkari politikoekin gai hauen inguruan hitz egin eta haiek erabakirik hartzen ez dutela ikusiko bazenute?

Zer egingo zenukete zuek herri honetako Kultura zehazteko bilera garrantzitsu bat antolatu dutela eta parte-hartze prozesu bat zabaldu dutela jakin eta inork deitu ez dizuetela jakingo bazenute?

Politikari agurgarriok, uste dut Administrazioak ez lukeela horrela jokatu beharko. Pertsonak dira Kultura egiten dutenak, eta ez eraikinak, eta pertsonak egitasmo berriak sortu eta bultzatzen lagunduko badute huts-hutsean ekonomiari begiratu beharrean Kulturari ere erreparatu behar zaio.

Kulturaz ari garela, edukia eta neurria biak dira garrantzitsuak, baina garrantzitsuagoa da Sorrenaren industria eta askatasunez lan egitea.

Zuek eztabaidan ari zareten bitartean, politikari agurgarriok, jakin nahiko nuke zer egingo ote zenuten zuek.

Ni neu Kulturaren esanetara jarriko naiz eta zinez eskertuko nuke gauzak bere lekuan jartzea.

Jaso ezazue Kulturaren langile, arduradun eta Aire Libreko Zinea sortzeko ideia izan zuen honen agurrik beroena.

Iñaki San Martin ☪

Costa Ricako eta Ipar Osetiako dantzak ekarriko ditu Nazioarteko Folklore Jaialdiak

Uztailaren 24an izango da jaialdia, 22:30etik aurrera, Olaizaga kiroldegian

Dantza eta musikaren bitartez, mundua apur bat hobeto ezagutzeko aukera izango dugu datorren astean. Haritz Euskal Dantzari taldeak antolatu duen Nazioarteko Folklore Jaialdiari esker, Costa Ricako eta Ipar Osetiako dantzak izango ditugu Elgoibarren. Batetik, Ipar Osetiako (Errusia) Gorets taldea etorriko da, eta bestetik, Costa Ricako (Hego-Amerika) Tierra y Cosecha taldea. Nazioarteko dantzekin batera, Haritz Euskal Dantzari taldeak Euskal Herriko dantzen erakustaldia eskainiko du. Nazioarteko Folklore jaialdia uztailaren 24an izango da Olaizaga kiroldegian, eta aurten, sarrera doan izango da. 22:30ean hasiko da dantza ikuskizuna.

Gorets (Ipar Osetia)

Gorets taldea 1961ean sortu zuten, eta ordutik, Osetiako koreografia eta ohiturak garatzen eta lantzen aritu izan da. Euren ikuskizunetan Osetiako bizimodua, ohiturak eta arima erakusten dituzte. Trebetasun handia eskatzen duten dantzak egiten dituzte, mugimendu anitzeko dantzak eskainiz. Osetiako herri-ondarea eta herri-musika dira taldearen dantza sortaren oinarria, baina Georgian eta Azerbaijaneko dantzak ere badiuzte.



Tierra y Cosecha (Costa Rica)

Tierra y Cosecha folklore taldea 1974an sortu zen, eta gaur egun, Costa Ricako folkloreaken ordezkari garrantzitsuenetakoa da. Taldeak eskaintzen duen dantza estiloak eduki historiko handia dauka, eta hango hainbat gertaera berreskuratu dituzte dantzen bidez eskaintzeko. M.A. Marvin Santos Varela da taldeko zuzendaria eta koreografoa, eta haren ezagutzari eta etengabeko lanari esker eskuratu ditu taldeak orain arteko lorpenik handienak.

Haritz EDT (Elgoibar)

Haritz dantzari taldeak Elgoibarko eta inguruko doinu, dantza eta tradizioetan oinarritutako saioa eskainiko du saioaren lehen zatian. Soka-dantzarekin hasiko dira, baina San Bartolome eguneko soka-dantza beharrean, XX. mende hasieran Gabon Zahar egunean egin ohi zen soka-dantza libre, bihurri eta jostalaria irudikatuko dute. Jaialdiaren bigarren zatian, *Cortesko paloteadoa* eskainiko dute. Nafarroako Erriberako paloteado hau herriko zaindaria den San Migel egunean, irailaren 29an egiten da.



36ko Gerran Zirardamendin hildako gudari eta milizianoak omenduko dituzte irailean

Dokumental bat grabatu dute Aiastian

Elgoibarko Udalaren ekimenez, *Goazen gudari danok... askatasun-bidean* egitasmoa jarri dute martxan, 36ko Gerran Zirardamendin hildako gudari eta milizianoak omentzeko. Dagoneko egin dituzte hanbat jarduera, baina irailerako antolatu dituzte ekitaldi nagusiak. Irailaren 4an, Elgoibarko Kultur Etxean "Goazen gudari danok... Askatasun-bidean Zirardamendi, Aiastia (San Migel), Elgoibar 1936 En defensa de la libertad" erakusketa ibiltaria inauguratuko da. Irailaren 15ean, berriz, liburu bat aurkeztuko dute Kultur Etxean, eta hilaren 18an, *Goazen gudari danok...* dokumentala estreinatuko dute, Herriko Antzokian. Dokumental horretako hainbat irudi Elgoibarren grabatu zituzten joan zen astean. Hogei laguneko lantalde teknikoa eta Elgoibarko eta Azpeitiko berrogei figurante aritu ziren Bioin baserri inguruan, duela 78 urte Zirardamendi-Aiastia-Elgoibarko fronte-lerroan jazotako gertaerak birsortzen. ETBk emango du dokumentala, baina aurrez Elgoibarren estreinatuko dute. Azkenik, irailaren 21ean, Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakaria buru, gorazareara egingo zaie 36ko gudariei honako



ekitaldi hauekin: lore-eskaintza gudarien hobien aurrean; Ertzaintzaren musika-bandaren emanaldia, eta Gernikako Arbolaren kimuaren landaketa.

Hobi komunetara bisita

1936ko irailaren 24an Patronatetik, Bilboko Zazpikaleak auzotik, irten ziren hainbat gudari eta Aiastiako frontera ailegatu ziren, Mola jeneralaren guda-tal-

deen erasoaldia gerarazteko helburuarekin. Gudari horietako batzuek Zirardamendin hil ziren, eta hobi komunetan ehortzi zituzten, harik eta 2012ko ekainean deshobiratu zituzten arte [bi gudari identifikatzea lortu du Aranzadik]. Joan zen domekan, gudari haien hogeita hamar bat senidek, gudariak euren duela 78 urte egin zuten ibilbide berarekin egin zuten Zirardamendi inguruetan.

Naturarekin zerikusia duen graffiti, Pilar ikastetxeko hormetan



Graffiti auzolandegiak egingo dituzte Elgoibarren, eta ekitaldien artean, Pilar ikastetxea zegoen gunean agertu diren hormak margotuko dituzte. Aste honetan hasi dira lanean, eta abuztua amaizera-ko, naturarekin zerikusia duen irudi bat marraztuko dute. Euskal Herriko eta Espainiako hainbat lekutatik etorritako hogeita hamar gazte jardungo dute lanean, bi txandatan banatuta. Bi aste egonaldia egingo du talde bakoitzak Elgoibarren, eta Gasteizko Fill in Culture lau begiraleren laguntzaz, lagun giroan landuko dute sormena. Elgoibarko Institutuko gimnasioan hartuko dute ostatu gazte horiek, eta han izango dute jateko eta lo egiteko aukera. Goizez horma margotzen jardungo dute, eta arratsaldean Elgoibarko inguruak eza-gutzeko aukera izango dute. Pello Arrieta historialariarekin Elgoibar-ko alde zaharrean bisita gidatua egingo dute, besteak beste.

Asmaola aurkeztu dute, enpresa txiki eta ertainen berrikuntza aplikaturako zentroa

2015-2016 ikasturtean jarriko dute martxan

Orain dela lau bat urte hasi zen IMH Asmaola proiektua garatzen, eta aste honetan bertan aurkeztu dute. Enpresa txiki eta ertainen berrikuntza aplikaturako zentroa izango da Asmaola. Berrikuntzarako ateak itxita daude gaur egun enpresa txiki eta ertain askorentzat, eta merkatuan dagoen hutsune hori betetzera dator Asmaola, IMHko zuzendari Joxean Egañaren berbetan. 2015-2016 ikasturtean jarriko dute martxan egitasmoa. Alcorta Forging Group enpresak lagatako lurretan eraikitzen ari dira Asmaola zentroa, IMHtik metro batzuetara alegia, eta datorren udaberriko obrak amaitzea aurreikusten dute arduradunek. Eraikinak 1.200 metro koadro erabilgarri izango ditu, eta horietako 400 metro koadro hartuko ditu tailerrak. Proiektua martxan jartzeko Kutxak emandako diru-laguntza "ezinbestekoa" eta "eskuzabala" izan dela nabarmendu du Egañak, eta eskerrak eman zizkieten Kutxako ordezkariari aurkezpen ekitaldian.

Asmaola+

Asmaola egitasmoaren bilakaera da Asmaola+. Elgoibar-ko IMHk sustatutako egitasmoa gauzatzen joan ahala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesas jaso zuen. Erakunde publikoen babesarekin Elgoibarko mugak gainditu eta Euskal Herriko beste zentro batzuekin saretu da.



Hala, 2013ko irailean jarri zuten abian Asmaola+, Lanbide Heziketako ikastetxeen aliantza estrategikoa sustatzen duen proiektua. Elgoibarko IMH, Bergarako Miguel Altuna, Usurbilgo Lanbide Eskola, Irungo Bidasoako Lanbide Eskola, Muskizeko Somorrosto Lanbide Eskola eta Tknikaren parte hartzearekin jarri zuten abian, eta joan den ekainaren 30an beste lau zentro batu zitzaizkien: Eibarko Armeria Eskola, Gasteizko Egibide, Bilboko Elorrieta-Erreka Mari eta Derioko Txorierrri Politeknika Ikastegia.

Imanol Iparragirre presoari ongi-etorria egin zioten eguaztenean

Imanol Iparragirre aste utzi zuten martitzenean. Pasaitarra da sortzez, baina Elgoibarren bizi da. 18/98 auziaren baitan kondenatu zuten, Ekin atalean. 2007an atxilotu zuten. Eguaztenean egin zioten ongi-etorria Kalegoen plazan. Aurrekua dantzatu eta lore sorta bat eskaini zioten.



Palestinari buruzko hitzaldia antolatu dute hilaren 23rako

Azken asteotako gertaera "larririak" ikusita, eta Nazio Batuen Erakundeak 2014a Palestinarekiko elkartasun urtea izendatu duela kontuan hartuta, Palestinako egungo egoerari buruzko hitzaldia antolatu du Arnaldo Askatu plataformak, uztailaren 23rako. Koldo Sagasti Palestinan aditua, Euskal Herria-Palestina Sareko kidea eta UHINTIFADA irrati saioko gidaria (Hala Bedi Irratia) izango da hizlarietako bat, eta bestea, Javi Dominguez kirolaria (Ehunmilak proba irabazi berri du), zientzialaria eta Palestinan brigadista ibilitakoa. Kultur Etxean izango da hitzaldia, 19:00etatik aurrera.



kaila barren

MOZORRO JAIAK



Santanen barruan, Koadrilen Eguna ospatuko dute bihar Mendaron, eta jai-batzordetik mozorrotzera deitu dituzte herritarrak. Garai bateko usadioa berreskuratu nahi dute gazteenek.

Ainara Argoitia

Garai bateko jaien itxura hartuko dute aurten santanek, edo nahiko lukete, behinik behin, jai-batzordera batu direnek. Mozorrotuta irteteko proposatu dute biharko, Koadrilen Egunerako, eta Gala Gaua iragarri dute hilaren 24rako, Santixo bezperarako. Gala Gauaren harira, dotoreen jantzita doazenentzat sorpresa ere izango dela dio jai-egitarauak, baina kontuz! Dotore jantzte horrek baduelako bere zera ere. Gehiago da *Txoni gaua*, gehiago da nabarmen jantzita irteteko gaua. Hala ohartarazi dute antolatzailleek: animatzeko eta jantzeko nabarmen, ez mozorrotzeagatik nabarmenegi gelditu nahi ez bada. Nolanahi ere, aurtengo bi proposamen hauek badute duela urte batzuetako santanen usainik.

Mendaron ez delako guztiz berria herriko jaietan mozorrotuta irte-tea. Mendaro herria sortu aurretik, Garagartzan Mozorro festa egin ohi zela gogorazari du Juanjo Loiolak; Eganen dantzaldia izaten zela urtero Garagartzako plazan, ordaipenkoa, eta mozorrotuta joateko ohitura zutela koadrilek. Elegante edo Traje eguna ere izaten zen santanetan, Bezpera Egunean, eta orduko oroitzapenak ekarri ditu gogora Inaxio Salegik. Albumetik atera du argazkia haren iloba Lisbeth Rotetak eta han ageri da Inaxio bera, traje grisa soinean eta krabelin zuria paparrean duela. Egun handia izaten zela gogorazari du Inaxiok. "Aitaren trajea jantzita irtetzen ginen, praka zabal-zabalak jantzita, lotsagarri xamar, baina grazia horretxek zeukan. Poteoan ibiltzen ginen, eta gero Santuaran tabernan bazkaltzen genuen lau-bost koadrilak. Pare bat urtean, zezenketak antolatu zituzten San Jose plazan eta han ibili ginen gu ere turutak-eta hartuta". "Sekulako" oroitzapenak dituela aitortu du Inaxiok eta gauza bera esan dute Juami Arriolak eta Montse Galdosek. "Eskura geneuzkan trajeak jantzita irtetzen ginen, arropa kutreneeekin. Traje eguna deitzen genion, hori bai. Manolas jantzita ere irten izan ziren batzuk, eta turutak eramaten genituen giroa jartzeko. Hortik sortu zen geroago Bizi-Poza txaranga bera ere", zehaztu du Juanmik. "Golfoenak" elkartzen zirela nabarmendu du Montsek eta eta koadrila ez



Inaxio Salegi, erdian, makurtuta, Traje Egun batean.

berdinetakoak izanda ere, elkarrekin ibiltzen zirela. "Berezia izaten zen oso".

San Josen zezenketak egin zituzten urte bateko argazkia ere recuperatu du Inaxiok, baina argazki beharrik ez du Juanmik zer izan zen gogoratzeko. "Debakoien ohitura hori ere geure egin genuen. Elkarri irina eta gaseosa botatzen jardun genuen. Behin, eta azkena".

"Elegante" jantzen noiz hasi ziren ez dute gogoratzen, eta ezta ideia zeinena izan zen ere, baina bost bat urtean jantzi zirela uste dute, "1986-90era-edo", Juanmiren arabera. Eta horren oroitzapen politik izanda, ez da harrizkekoa pozik hartu izana ezerezetik sortu eta berez-berez galdu zen ohitura hura errekupeartzeko jai batzordetik egin dute deia. Ez dute ingurukoekin hitz egin, baina txoni jantzeko erreparorik ez dutela izango aitortu dute elkarriketatuetako bik.

Eta mozorrotzeko erreparorik izango ez dutenetako bi Garbiñe Maiz eta Edurne Zulaika dira. Inauteri zaleak dira biak, batez ere Garbiñe. Mendararra da Edurne, Garagartzako mozorro festara sarrerarik ordaindu gabe sartzeko trikimai

Traje Egunaren bultzatzaileetako batzuk San Joseko plazan, zezenketak egin ziren urte batean.



Mozorro festak indar handia izan zuen garai baten Mendaron, eta zenbaitek gero ere jarraitu zuten santanetan mozorrotzen.



Berak bizi duelako bizi dugu guk”, zehaztu du Edurnek. Eta bistan da, bai, mozorrotzea ikaragarri gustuko duela Garbiñek. Umeen bueltan sortutako koadrila da eurena, umeek elkartutako guraso koadrila, eta duela urte batzuetatik hona taldean mozorrotzen dira urtero inauterietan. Mexikar jantzita irten ziren estreinako urtean, pailazo jantzita irten ziren bigarren urtean, erosketako gurdixoa radiocasette zahar bat hartuta, baffle edo bozgorailu zahar bat ere inguratu zuten geroago Donostia aldetik, eta behin mozorrotzeko lan horiek hartuta, eguna goizean goizetik mozorrotuta hastea erabaki zuten. Pentsatu, egin, eta moda jarri, gainera. “Gu hasi ginenean inor ez zen goizez mozorrotzen Mendaron, eta orain, berriz, koadrila asko gara, eta urtetik urtera hazten ari da kopuru hori, gainera”, zehaztu du Garbiñek.

Sortu dute ‘eskola’ eta saiatzen dira azkeneko urteetan euren inguruan sortu diren espektatibak betetzen, jakin baitakite zain-zain izan ohi dutela jendea egun horretan. “Urte osoan buruan izaten ditut nik inauteriak. “Egunean bertan hasten naiz hurrengo urteko mozorroa izan daitekeena pentsatzen, eta izugarri disfrutatzen dut arropak topatu eta paperean sartzeko behar ditudan gainerako gauza guztiak lotzen”, esan du Garbiñek. Motxaila-bikote baten arteko ezkontza antzestu zuten urtean, esaterako, merkadillo askotan ibili zen jenero bila eta egiten zituzten ospakizunen inguruan galdezka ere ibili zitzaion saltaile ijito bati Bilbon. Biharko ere prestatu dituzte arropak eta bestelakoak, baina argi laga nahi izan dute euren mozorro izarrak inauterietarako gordeko dituztela. “Biharko gauza asko prestatu behar dira: goitibehera, dantza, playback-a, mozorroa... ez dago denerako astirik”, esan du horren harira Garbiñek. Baina parte hartuko dute, eta “onena” eman ere bai, garbi dutelako jai onak ez dituela egitarauak egiten, jendearen parte-hartzeak baizik. Horregatik, mozorrotzera eta jaietan parte hartzera deitu dituzte herritarrak. “Udak, gainera, sekulako aukera ematen dizu mozorrotzeko. Otsailean hotzez ibiltzen gara denok, eta orain aukera paregabea daukagu orduan egin ezin ditugunak egiteko. Inauterietan egin zuen eguraldi eskas harekin zenbat jende irten zen ikusita eta zelako mozorro dotoreak ikusi genituen jakinda, zer ez ete da izango zapatuan [bihar]”, bota du Edurnek.

-lu bat edo beste baliatutakoa gazteagotan eta donostiarra da sortzez Garbiñe, Altza auzokoa, inauterietan mozorrotuta desfilea irteko ohitura ume-umetatik jaso duena. “Gurasoekin batera mozorrotzen ginen gu auzoan eta Donostiara joaten ginen gero denok, desfilean parte hartzera. Inauterietako asteburu horrek, gainera, errepikapena ere izan ohi du Altzan Donostian desfilea egin eta astebetara. Bigarren asteburu horretan Altzan eta Trintxerpen egin ohi ditugu desfileak”. Mozorrotzeak tradizio handia daukan inguruan jaio eta hazi da Garbiñe, eta oraindik bizi du urtean behin Donostiako lagunekin inauterietan Tolosara joateko ohitura ere. Eta jakina, pasio hori kutsatu die bere ingurukoei ere, hein batean. “Beragatik mozorrotzen gara gu. Berak xaxatzen gaitu, berak prestatzen du dena, eta esandakoa egiten dugu guk. Nik ez ditut Garbiñek bezala bizi inauteriak eta lotsatiagoa ere baina nire egunerokoa, baina inauterietarako ekartzen badit nire gusturako baino gona motzagoa ere, jantzi eta aurrera nik, ikaragarri ondo pasatzen dugu eta. Meritu guztia berea da.



Edurne Zulaika eta Garbiñe Maizen koadrila, inauterietan.



NAGORE IRIONDO

DANBOR-JOLEA

Aurten ere, hutsik egin gabe irtengo da Nagore Iriondo helduen danborradan. Bera da danbor-jole taldeko emakumezko bakarra.

Noiztik diharduzu danborradan irteten?

18 bat urterekin hasi nintzen, gure ume sasoiaren ez zelako haurren danborradarik egiten. Lorea Garate, Aintzane Zulaika eta hirurok hasi ginen kupeletan, baina gero danbor-jole batzuek laga egin zuten itxuraz, eta hutsunea bete behar zenez, danborren taldera pasatu gintuzten. Orduan danborra jo dut beti. Lagunek laga zioten joateari eta orain neu bakarrik joaten naiz, baina oso gustura.

Zeu zara danbor-jole emakumezko bakarra. Kanpotik begiratuta, deigarria ere egiten da. Gizonezkoak alde batean, eta emakumezkoak bestean...

Bai, gertatzen dena da batzuk lekua hartu dutela aspalditik eta gainerakoak lagunak doazen taldera batzen direla. Koadrila berekoek koadrilan jo nahi izaten dutela, alegia. Orain pare bat urte gertatu zitzaidan polita! Lehenengo entsegura ezin izan nintzen joan, eta hurrengo egunean joan nintzenez danbor-joleen taldean ez neukala lekuri eta kupele jo beharko nuela esan zidaten. A zelako disgustua hartu nuen! Horrenbeste urte danborra jotzen eta... Azkenean, lortu nuen lekua.

Bereziagoa da beraz zuretzat danborra jotzea?

Bai, bai. Bereziagoa da. Napoleonen erroa hori, danborra bera... Egia da kupeletan giro hobea izaten dutela, baina niri danborra gehiago gustatzen zait. Danborra larruzkoa da eta soinua ere ederragoa da.

Nola bizi dituzu danborradarako prestakuntzak, eta eguna bera?

Oso berezia da. Hilabete lehenago hasten naiz etxean *dale eta dale*. Entseguetara astean behin joaten naiz, umearekin-eta dena ezin naizelako iritsi. Danborrada eguna bera oso berezia izaten da, eta zer esanik ez frontoira iristen garen momentua. Danborrada ez da, hala ere, garai batean zena. Ni ume nintzenez jende asko joaten ginen tropelean danborradakoen atzetik kalejiran. Kale dena betetzen genuen, sanferminetan bezala, baina hori galdu da. Urte batean, estazio pare horretara iritsi ginenean, 'egunen batean geuk ere jo behar dugu bai' esan genion elkarri Loreak eta biok. 12-13 bat urte izango genituen.

Donostiakoak, Azpeitikoak... aparteko sona dute. Joan zalea zara?

Urte askoan teletibistaz ikusi ditut, eta behin joan ere egin nintzen Donostiara, baina ez nuen espero bezain ondo pasatu. Jende larregi zegoen, eta gainera, festa kanpotik bizitzea ez da gauza bera. Niri danborra jotzea gustatzen zait, jotzen ikustea baino gehiago.

Baduzu gustuko piezaren bat?

Denak gustatzen zaizkit. Denak dira bereziak. Aurten pieza berri bat



“Negar ere egin nuen danborrada galtzear egon zenean”

gehitu dute, eta hori ere asko gustatzen zait.

Inoiz hutsik egin duzu danborradan?

Bai, Londresen egon nintzen hiru urteetan eta haurdun nengoan urtean, baina orduan ere, haurdun nengoela ere, ibilbide osoa egin nuen danborradaren atzetik. Beste urteren batean komeria dezenteak erabili nituen danborradarako libratzeko, baina etorri nintzen.

Aldatu egin dela diozu. Nolako zen hasi zintenean, eta nolako da orain? Zerbait aldatuko zenuke?

Sasoi batean, Aizpen egiten genuen danborrada aurreko afaria, eta sekulakoa izaten zen. Txomin Longarte eta konpainiak entsalada eta marmitakoa prestatzen zituzten eta han afalduta irteten ginen denok. Baina jendea hasi zen lagatzen, eta nik uste dut gazte jendea erakaritze aldera-edo, afaria debalde ematen hasi zela Udala, Luzaiden. Gero urteren batean, galtzear ere egon zen danborrada. Zer izan zen hura! Negar ere egin nuen nik, disgustuarekin.

Zerbait aldatuko zenuke?

Beharbada zuk esandakoa: neskak eta mutilak nahastuko nituzke.

Irakurri duzu jai egitaraua? Zer da zuretzat aurtengo bereziarena?

Bai, irakurri dut, baina ahaztu ere egin zait! Edozer dagoela ere, niretzat egunik bereziarena Santana eguna da. Ni Santa Anara agertzen ez naizen urtea hil naizen seinale izango da. Meza osterako agertzen naiz, hutsik egin gabe. Garai batean mahoizko alkandora jantzita joaten nintzen. Zergatik ez galdetu hori bai, egun hori berez zuriz janztekoa delako. Durangon bizi naiz gaur, baina herriko jaiekin lotura berezia sentitzen dut oraindik ere, eta Santana eguneko itzela izaten da.

**Ondo
pasa
jaietan!**

UZTAR

UZTARGI KAFETEGIA
Herriko enparantza 8
Tel.: 943 03 01 50
MENDARO

A rriola
A roztegia

Garagartza kalea, 44
Telf.: 629 258 172
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

LEIRE JANTZIDENDA

**Ondo
pasa
jaietan!**

AZPILGOETA, 24
Tfnoa: 943 033 663
leirejantzidenda@euskaltel.net

S & P

KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNCre AUTOMATIZAZIOA,
ERREMINTA MAKINA, BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.

SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industrialea SE-6 • 20850 Mendara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 659 / 929 710 163 • Fax: 943 742 346
www.santosypaxi.com • comercial@santosypaxi.com

MENDARO 1983

*Mendaroko Udalak
Santana zorionsuak opa dizkizue.*

TAXI

**Kontxi Urain
MENDARO**

Mobila:
607 575 728

**aitz
beltz**

**Ondo
pasa
jaietan!**

Tel.: 943 530 284
Mendarozabal, 13 - 20850 Mendara

• Poligono Kurutz-gain, 9 A • 20850 MENDARO
• Tel.: 943 758 112 • Faxa: 943 755 085
• Mugikorra: 638 497 485
• e-posta: iraolagoitia@iraolagoitia.com

AZIBAR IRADLAGOITIA GALLASTEGI

Ondo pasa jaietan!

IRAOLA
arotz lanak

AUTOZERBITZUA

ELKAR

Kilimon Hiribidea, 5 beheha
Telf.: 943 53 00 72 - Fax: 943 53 00 73
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

TERESA ARRIOLA



Teresa Arriola bere biloba Oihana Lizarralderekin.

81 urte ditu, baina 18 urte dituela dio berak, eta izpirituz behintzat asko gazte baino gazteagoa bada Teresa Arriola Teresin (Mendaro, 1933). Ilusio handia du santanetarako eta prest ditu dagoeneko zapi eta kapelak, jaietaz “topera” disfrutatze-ko. Gazteak disfrutatzen ikus-teak gaztetu egiten duela aitortu du eta bi txakolinek, “argitu”. Iaz bete ez zuena bete nahiko luke aurten: goitibeheran agur eginez jaitisi.

“Jaietan gaztetu egiten naiz ni gazte artean”

Parrandan ez zara atzera gelditzekoa. Telesail batean bazen ‘super amona’ izeneko bat. Laster dizue zeuri ere titulo hori eman!

Superrak joan ziren hemen, baina amama parrandazalea banaiz; beti izan naiz. Batzuetan frenoa ere botatzen didate bilobek, baina ‘aire’ esaten diet nik, ‘zuek segi zuenera, eta laga ni bakean!’.

Poteoan ezagutu zintudan neuk ere, kapela handi bat jantzita. Ezin esan ohikoena denik zure adinekoen artean. Zenbat urte dituzu?

Nik? 18. Ez naiz ba gazte egongo! Hil artean gazte ni! Nire bizimodua jakin nahi duzu? Ez dut bizimodu erraz-erraza izan, baina umoreak lagundu dit beti aurrera egiten, eta orain, poz-pozik bizi naiz, nire edadeko batek izan dezakeen gauzekin, baina pozik. Ezingo dugu ba 81 urterekin 18 urtekoaren sasoia izan, ala? Neuk ere izaten ditut bajoi unekak etxean bakarrik nagoenean-eta, baina kalera irten eta pasatzen zaizkit. Oraingo gazteei gertatzen zaie, baina, ez dakitela dutena estimatzen. Barrerik egiten ere ez dakitel. Gu, berriz, beti barrez, ahoa zabal-zabalik eginda. Gu denei *agurka* ibiltzen ginen kalean, eta orain inork ez du agurrik ere egiten. Batzuetan esango ditut disparteak nik, baina denei egiten diet berba, eta berdin zait kafea honekin edo harekin hartu. Horrek zer du ba txarrik? Jaio ezkeron naiz ni halakoxea.

Jaietako ilusiorik baduzu?

Itzela. Sekula ez naiz dantzaria izan, baina jardutekoa, bai. Txakolina ere gustatzen zait, eta edaten dut pixkat eta piztu, argitu! Kapela handia jantzi eta aire nik bizkor festara! Sekulako kapela sorta daukat etxean eta auzo erdiarentzako jaisten ditut txapelak jaietan. Kapelak eta amantalak eta...zer ez! Gazte artean ibiltzea gustatzen zait, nire edade-

koek ez didate nik nahi bezala jarraitzen-eta. Irten ere ez dira egiten barren! Gaztetu egiten naiz ni gazte artean. Txakolin bi hartu eta inguru-koak tentatzen ibiltzen naiz beti.

Azpilgoetakoa zara zu izatez. Andramariak edo gaurko santanak dituzu nahiago?

[Mahaian grabagailua dagoela jabetu da]. Hasi al da hau markatzen? Esango dizut orduan. Plaza auzokoa naiz ni izatez, baina autobidea egiteko bota ziguten etxea eta Azpilgoetara etorri nintzen. Eta horregatik, bizi guztian andramariak izan dira gureak, baina santanei ere ez diet muzinik egiten. Jaia gustatzen zait niri, edozelako jaia. Oraingo erdi ere ez zen bizi jendea lehen hemen [Azpilgoetan], baina ai, zer jai ziren haiek! Mutrikutik etortzen ziren bandakoak, txistulariak... ekartzen zizuten zezanak ere... baina halako batean galdu zen dena. A zelako disgustua! Eskerrak beheko tabernaria hasi zen bere kontura andramariak antolatzen! Jaiak errekuperatu genituenean jantzi nuen laster baten berriro kapela handia, eta kalera!. Mantal beldurgarri batzuk ere erregalatu zizkidaten eta jantzi nizkien tabernariei, hasi nintzen dantzan, eta sekulakoak egin genituen.

Mozorrotzea gustuko duzu hortaz. Aurten mozorrotzeko eskatu dute jai-egitarauan.

Ez dut irakurri! Zer dago? Disfrax jaia? Ene! Askok gustatzen zait niri mozorrotzea. Koadrilakoek ez didate laguntzen, baina. Biloba zaharrenak ikastolan zebiltzanean haiekin batera jantzen nintzen ni.

Zein duzu egunik gustukuena?

Santana eguna. Santa Anara begira egoten naiz ni balkoitik egun ho-


rretan goizean goizetik. Han batzen da jendetza! Mezetara ez dut uste asko sartuko direnik, baina ederra egoten da ikusteko. Gazte jendea behera datorrenerako jaisten naiz neu ere kalera, Menditxo edo Arrats ingurura. Jartzen naiz gero lehenengo lerroan, eta han joaten naiz kalejiran, beti aurre-aurrean. Eguneko poteo horrek sortzen duen giroa sekulakoa izaten da, eta geu ere hantxe ibiltzen gara tonto usainean, gustura. Lasalderreko mutilarekin ere han daukat nik erretratu dotorea aterata Menditxoko eskilaretan! Gazteen ondoan gaztetu egiten naiz ni. Mendaron grazia handiko mutilak claude gero! Egaña eta Lizaso etortzen dira sarri egun horretan, eta Egañak neuri ere kantatu izan dit noizbait.

Asko aldatu dira jaiak zure gazte sasotik?

Aldatu norbera aldatzen da hemen. Atzokoak eta gaurkoak, jaiak beti dira onak, baina garai batekoak nahiago nik, parrandarako sasoi hobe nuelako. Oraingo gazteen aldean gehiago disfrutatzen genuen guk, eguna bizi genuelako. Egunez egiten genituen guk egin beharreko denak! Gaua ere laga izan baligute, ai ama zer ez ete genuke egingo orduan sasoi harekin, baina mutil-laguna ere oso gazte nintzela topatu nuen, eta akabo! Emeterio atzeko frontoi zaharrea egiten genuen erromeria, eta mutil asko etortzen zen kanpotik ere: Debatik, Elgoibartik, Eibartik... Heldu elkarri eta *agarruan* egiten genuen dantza, eta hamarretan etxera. Jaiero egiten zen hori. Santiotan, berriz, Garagartzara joaten ginen. Oraingo aldean tabernak ere asko ziren lehen: Mateonekoa, Gartzianekoa, Txikitxonekoa, eta pozik joaten ginen.

Zer egiteko asmoa duzu jaietan?

Topera ibili! Batek daki azkenak izango diren, eta badaezpada topera gozatu behar da. Dantza, edan... komeni dena. Edaten badut pixkat harrapa dezaket dominatu ezinekoa ere, baina aurrera! Koadrilen Eguna ere asko gustatzen zait. Gazteak disfrutatzen ikustea baino gauza ederragorik ez dago. Iaz, goitibeheran jaistekotan ere egon nintzen. Batu ginen alaba, Jaione Urain eta hirurok eta abantatu ere egin ginen, baina umeek bajatu nahi zutela esan ziguten eta gelditu ginen atzera. Aurten saiatu beharko gara. Tren Txutxua etorri zen lehenengo urtean, berriz, han joan nintzen trenean. Zaharrontzat jarri ei zuten, baina gure edadeko inork ez zuen nahi eta han joan nintzen ni ume artean. Estazio aurretik pasatu ginenean gure edadeko gizon bat han hasi zitzaidan



Teresa Arriola, iaz, Santana egunez, Andoni Iriondo gaztearekin dantzan.

barrez lehertu beharrean aitaren eginez! Nik lotsarik ez daukat, baina. Ez nau kezkatzen besteek zer esango duten horrek. Barre egin eta barre eginaraztea baino gauza ederragorik ez dago barren!

Egin duzu nekez ahazteko parrandarik?

Asko. Denak. Beste askoren sasoi banu, orain ere egingo nuke nik gustura.

Jubilatuentzako eguna antolatzen dute orain zuentzat.

Bai, baina ez zait horrenbeste gustatzen. Txarto ez dago, baina gazte-agoekin hobeto ibiltzen da naiz. Iaz ez nintzen joan, baina aurten semeak apuntatu nau, eta joan beharko naiz. Egia esan, koadrilan beti ibiltzen naiz ni ondo, eta egun horretan ere edozeinen ondoan jartzen naiz, baita gizon artean ere. Hori bai, alabarekin eta beste lagunekin gusturago ibiltzen naiz. Beste giro bat izaten dugu! Falta, baina, ez du ezer falta gure egunak!. Izan ere, jaiak ez ditu egitarauak egiten onak. Jaia norberak egin behar du handi, norbera girotuta.

Elegante janzteko eguna ere jarri dute aurten

Elegante? Disfrazatuta joateko hobeto nago ni, baina Jaione [Urain] preparatzen bazait, nik segituko diot. Tentatuko dut, bai.

Karta jokora emanda claude zure edadeko asko. Nola animatuko zenuke?

Animatu? Alferrik da! Animatu, norbera animatu behar da hemen!

Eta txupinazoa botatzeko eskatuko balizute?

Okerrera joateko ere txupina... Norbaiti buruan joteko ere! Petril handi haren atzean ikusi ere ez ninduten egingo gainera kaletik. Igo beharko ninduten nonbaitera. Ez, ez. Halakorik ez dut nahi.

Zerbait falta dute jaiak?

Ni konforme nago dagoenarekin. Danborrada, Gazteen Eguna... Danborradan biloba ikusteak sekulako poza ematen dit. Plazara ere joan izan naiz ikustera. Zelako kantu ederrak! Mendaroko martxa bezalakorik ez dago, hala ere. Behin, Eibarren ere jo zuten. Hiru-lau herritakoak jo zituzten eta politena gurea, Mendarokoa.

Batek baino gehiagok esan dit nagusien danborradan kantinerik zaharagoak izan beharko luketela. Ez zenuke gaizki emango zuk ere!

Ni kantinera? Denek hanka egiteko ere! Zaldi gainean jartzen banaute igual hori ere. Erregeen moduan denei agur eginez joango nintzateke ni. Zaldian ez dakit, baina karrozan bai! Preparatuko nintzateke ni karrozarako. Sinpatiatik badaukat, baina elegantetik gutxi, eta ez dakit ba. Ez luke dotore emango 81 urteko andreak karrozan! Gurdian ibilitakoak gara noizbait, baina karrozan...

Antzerkia eta dantza gustuko ei dituzu. Playback-a gustuko duzu?

Ikaragarri. Zenbat barre! Behin Hilario Errementarikoaren plantak egiten irten ziren hiru gazte. Sekula ez dut horrenbeste barre egin! Ez dit inork eskatu, baina gazteago banintz gustura egingo neuke nik ere antzerkia edo. Barre eginaraztekoa, hori bai. Negar egiteko miseriak etortzen dira eskatu gabe ere! Gazteen kontuetatik herri bazkaria ere gustatzen zait. Hau umea zenean [Oihana Lizarralde biloba], biok joan ginen bazkaltzera. Orain ez dute nahi, baina, nirekin joaterik, koadrilan ibiltzen dira-eta!.

Zapia ekarri dizu bilobak jaietarako.

Bai. Bera ere etorriko da laster. Hotela zabaltzen dut nik jaietan. Orain ez dira lehen beste etortzen, baina garai batean koltxoia ere erosi behar izan nuen, Eibarkoak-eta hartzeko.

ELISABETTE NOSELLAS

Allur dantza taldekoa



'Soinaz' ikuskizuna eskainiko du Ibarako Allur dantza taldeak Santxago egunean, frontoian (18:00). Talde gaztea da Allur, 1995ean sortutakoa, eta tradizioan oinarritutako koreografiak eta musika berritzaileak eskaintzen ditu. Elisabette Nosellas taldekideak eman dizkigu ikuskizunaren gaineko argibideak.

“Atzea uzteak ematen duen mina eta aurrera egin nahia erakusten du gure dantzakerak”

Zer da Mendaron ikusiko duguna?

'Soinaz' ikuskizuna gure azkeneko hiru ikuskizunen bilduma da. 2008an sortu genuen aurrenetako ikuskizuna: *Sua*, eta gero etorri ziren *Oinazez* (2010) eta *Izanak dirau, 1512* (2012). Hiru ikuskizun horietatik gehien gustatzen zitzaiguna hartu eta Oreka Tx musika taldearekin batera egindako beste hainbat lan gehituta ondu dugu hau.

Dantza tradizionala egiten duzue?

Dantza tradizionalan oinarritzen gara, baina dantza garaikideko eta klasikoko hainbat koreografia ere uztartzen ditugu. Aiert Beobide Haatik dantza konpainiaren sortzailea da gure zuzendaria, eta bere eskutik, eta Katixa Perea dantza klasiko eta garaikideko irakaslearen laguntzarekin, sortzen ditugu koreografia berri horiek. Gu beti gaude atzera begira, baina aurrera egin nahian. Mina ematen du atzera uzteak, baina aurrera egin behar da, eta hori erakusten du gure dantzakerak ere. *Oinazez* ikuskizunaren oinarria, hain justu, horixe zen, eta oso ondo adierazten zen hori Zuberoko dantzekin.

Zehazterik bai gehiago Soinaz ikuskizuna?

Tomas Sanmigelekoaren agurrarekin hasten da, Aiertek egindako koreografia berezi-bereziki batekin, eta gero, gure hiru ikuskizun horien erreposoa dator. *Sua* sorginen inguruko ikuskizuna zen eta sorginek egiten zuten fandango bat hartu dugu handik. *Oinazez* lanetik dantza garaikideko trantsizio batzuk hartu ditugu eta baita Zuberoko pauso batzuk ere, eta *Izanak dirau, 1512*ko hainbat zati: Ezpata jokoa, maki-ekin egiten den Iparraldeko dantza bat...

Talde gaztea zaretela irakurri dugu, baina zenbat lagun mugitzen duzue gaur? Zenbat laguneko taldea arituko da Mendaron?

20-21 laguneko taldea. Gure taldeak handiak dira, eta Mendarora joango dena gure talde helduena da. Izan ere, 4 urtez gorako ehundik gora lagun inguru mugitzen ditugu, gu Ibarako taldea izan arren, herri askotara joaten garelako dantzan erakustera.

Nazioarteko dantza jaialdietan ere parte hartu izan duzue. Zer nolako esperientzia izan da zuentzat?

Bai, dezente ibili gara, baina azkeneko bi urtean ez gara atzerriara joan. Eskaintza tentagarriak jaso ditugu, baina lehen ez bezala orain gastu guztiak geure gain hartu behar ditugu eta ezin diogu horri aurre egin. Iruditzen zait gauza horiek bultzatu egin behar direla gazteen artean, beti delako aberasgarria kulturen elkatrueka.

Zenbat jende mugitzen duzuen ikusita, zuenean dantza osasuntsu da goela esan daiteke behintzat.

Bai. Guk momentu onetan jende asko daukagu bueltan. Pentsa, askotan gurasoek eurek esaten didate beharbada atea itxi beharko genukeela, ezin dugula jende gehiago hartu, baina niri pena ematen dit. Baina egia da herriko dantza taldeen funtzioa beharbada beste batekin izan beharko lukeela. Gaur, dantza-eskolek egiten duten lana egiten dugu, eta iruditzen zait hori beste norbaitek bultzatu beharko lukeela, gazte asko daudelako dantzan ikasi nahi dutenak, baina ez dutenak nahi horretan luze aritu, horrenbesteko inplikazioa eskaini. Herriko dantza taldeak ardura asko hartzen ari dira gaur euren gain.

MENDARO

Ondo pasa jaietan!

ALBERTO

Arraindegiaz

Tel.: 943 03 36 22 • Mugikorra: 600 44 02 55

m mendaro
ikastola

Kilimon, 2
Tel.: 943 756 141



MENDARO IKASTOLAKO TXOKOLOREN PARTEZ ONDO PASA JAİETANI



Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 75 60 44
Faxa: 943 75 60 37
Mugikorra: 659 334 323
E-mail: pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

PAGOERROTA ITURGINTZA

- ☀ Iturgintza
- ☀ Gasa
- ☀ Berogailuak
- ☀ Sukalde eta bainuen proiektuak
- ☀ Igeltseritza

Ondo pasa jaietan!



LANDA
ERRETEGIA

Ondo pasatu jaietan !!

Garagartza, 32 • MENDARO
☎ 943 75 60 28

electricidad PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
perosanz@cuskalnet.net

Ibargain 17, AC behea
Tel.: 943 202 268
Faxa: 943 206 045
20600 EIBAR

Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
Faxa: 943 031 718
20850 MENDARO

morroskillo

Liburuak, papera, menajea, opariak...

Tel.: 943 033 631
Faxa: 943 755 235
E-posta: morroskillo@hotmail.com
Herriko Enparantza, 18
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

ONDO PASA JAİETANI



SANTANAK 2014

19 ZAPATUA

12:00 Mozorro desfilea, plazan, Bizi Poza txarangarekin..

13:00 Paella lehiaketa, frontoian.

14:30 Herri bazkaria. Ondoren, karaokea.

18:00 Goitibehera txapelketa, Azpilgoetan. Ondoren, Agosti eta Barrena taldearekin kalejira.

23:30 Playback lehiaketa, eta sari banaketa. Jarraian, Laket taldearekin dantzaldia eta ondoren, Nemux DJa.

24 EGUENA

18:15 Kanpai jotzea.

18:30 Salbea Azpilgoetako elizan. Txistulariek lagunduta egingo dute elizara arteko bidea udal agintariak.

19:00 Mo(l)to lasterketa, Errekabarren zubian.

19:30 Txupinazoa eta Katasorgiñaren jaitsiera, Bizi Poza txarangak alaituta.

20:00 Santanetara ongi-etorria iaz jaiotako mendarorrei.

23:00 Dantzaldia, Caiman orkestrarekin. Gala gaua izendatu dute egun honetakoa, eta "eleganteen" janzen direnek saria jasoko dute.

25 BARIKAKUA

Santixao eguna

11:00 Mendaroko txistulari taldearen kalejira.

11:30 Haurrentzako jolas atrakzioak, ikastolan.

12:00 Meza nagusia, Garagartzan.

12:30 Pilota jaialdia: Mikel Goñi eta Uzkudun / Eugi eta Goñi III.a. Partida nagusi horren aurretik, herriko pilotari gazteen erakustaldia.

Ondoren, Mausitxa txarangaren kalejira.

17:00 Haurrentzako jolas atrakzioak, ikastolan.

18:00 Allur dantza taldearen ikuskizuna.

Ondoren, kalejira, Mausitxa txarangarekin.

22:30 Nagusien danborrada, Mausitxa txarangarekin.

Ondoren, dantzaldia, Luhartz taldearekin.

26 ZAPATUA

Santa Ana eguna

10:30 Txistulariekin prozesioa, Azpilgoetatik Santa Anara.

11:00 Meza nagusia, Santa Ana ermitan. Ondoren, erromeria, Ostolaza eta Andonegi trikitilarietara eta Lizaso eta Egaña bertsolarietara.

16:30 Apar jai Mendarozabalen.

18:00 Herri kirolak: Gipuzkoako I.mailako aizkolar txapelketa.

Ondoren, Estampas de Mexico mariatxi taldearen kalejira.

23:30 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

Ondoren, Disko festa.

27 DOMEKA

Zahartzaroaren eta haurren eguna

10:00 Elgoibarko dultzainero taldearen kalejira.

11:00 Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrentzako pintura lehiaketa.

11:30 Jolas atrakzioak ikastolako patioan.

12:00 Meza nagusia frontoian.

Ondoren, euskal dantzak, Mendaroko trikitixa taldekoen eskutik.

Txutxu trenan ibiliko da herrian atzera-aurrera.



MAITE MAIORA, TXUPINERA



Arg.: Quim Farrero

Txupina botatzeko ardura zeuri eman dizute aurten. Zer sentitu zenuen proposatu zizutenean?

Sekulako ilusioa egin zidan. Ni mendarorria naiz eta txupina botatzea, norbere herriko jaiak hastea, oso polita da. Eskaintza egin zidatenean ez nuen zalantzarik ere egin. Nire lanari egindako aitortza gisa hartzen dut, gainera.

Kirolaria zara zu, elitetako kirolaria. Nola bizi ditu zu bezalako batek jaiak?

Egia da ez ditudala lehen bezala bizi. Ez nago parrandak egitera ohituta eta gauez galtzeko ohitura hori ere galdu dut. Gehiago esango dizut: gero eta gutxiago gustatzen zait gainera hori. Dena den, parrandaxoren bat egiteko asmoa badaukat aurten, baina ia seguru nago bakar horrekin aseko naizela.

Zer da herriko jaietatik gehien gustatzen zaizuna?

Niri egunez diren jaiak gustatzen zaizkit gehien, jai egunez bizitzea, eta Mendaron, zalantzarik gabe, egunik onena Santana eguna da niretzat. Egia da bezpera eguna beti dela berezia, orduan gaudelako indartsuen eta lehenengo eguna izanda, jairako gogo handiz egoten garelako, baina bat aukeratzekotan Santana eguna aukeratu nuke.

Mikel Cornejok irabazi du Sallobenteko jaietako kartel lehiaketa

Sanlotroia izango da jaietako berrikuntza

Sallobenteko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute aurten estreinakoz, eta Mikel Cornejo izan da lehiaketako irabazlea. Cornejok 120 euro eta bi lagunentzako afaria irabazi ditu.

Sanlotroia, jaietako berrikuntza

Abuztuaren 8tik 10era ospatuko dituzte Sallobenteko jaiak, eta aurtengo berrikuntzen artean Sanlotroia aipatu behar dugu. Hilaren 10ean, San Lorentzo Egunean, egingo dute kirol proba hori. 12:00etan hasiko da, eta hiru proba gainditu beharko dituzte partaideek: Sallobentetik Maalako errotondaraino korrika egin beharko dute lehenengo, eta gero bizikletaz itzuli. Sallobentera iristean bolo jaurtiketa egin beharko dute, eta



botatzen duten txirlo bakoitzeko minutu bat kenduko diote aurrez egindako denborari. Irabazleak bere pisua eta bizikletaren pisua batuta jasoko ditu eurotan.

Abuztuaren 9an, auzora joateko eta itzultzeko autobusa jarriko dute Maalatik, 19:00etatik goizeko 7:00ak arte.

ZZ Blues Banda taldeak kontzertua eskainiko du gaur, Maalan

Maalako jaien barruan, ZZ Blues Band taldearen kontzertua izango da gaur gauean, Maalako parkean. Soraluzeko taldea da ZZ Blues Band, eta izenak berak aditzera ematen duen moduan, blues doinuak jotzen dituzte bereziki. Lagun arteko denborapasak eta inprobisazioak, talde finko bat sortu zuen 2011n, eta ordutik etengabe dihardute kontzertuak eskaintzen. 22:00etan hasiko da kontzertua.



Iñaki San Martinen argazki bat saritu dute Serbiako Kula 2014 lehiaketan

Serbiako Kula 2014 argazki lehiaketan hartu du parte Iñaki San Martin Soarte argazkilaria elgoibartarrak, eta arkitektura atalaren barruan saritu dute. Bilboko Guggenheim museoko titaniozko teilatuari ateratako argazkia aurkeztu zuen Soartek lehiaketara.



Kultur guneak berrantolatzeko parte-hartze prozesua herritar guztientzako zabalik dagoela erantzun dio Udal Gobernuak EHBilduri

Elgoibarko kultur guneak berrantolatzeko parte-hartze prozesua jarri du martxan Udalak, eta horren barruan, Aita Agirreko kultur gunea egokitzeko asmoa azaldu du. Elgoibarko EHBilduren ustez, baina, prozesu parte-hartzailea "mugaz josit" dago, bereziki, hainbat kultur eragilek ez dutelako jaso prozesuan parte hartzeko deialdia. Kritika horiei erantzun die Udal Gobernuak, parte-hartze prozesua herritar guztiei irekita dagoela erantzunez. Are

gehiago, elkarteren bat edota eragileren bat falta dela ikusiz gero, proposamena egiteko eskatu dio EHBilduri. Kultura, euskara, sorkuntza edo hezkuntza esparruetan diharduten eragileek lehentasuna izan dutela azaldu dute Udal Gobernuko ordezkariak, horiek baitira euren ustez, "eraginkorrenak", gaur egun, Elgoibarko bizitza kulturalen, euskara arloan eta hezkuntzan. Alabaina, prozesu parte-hartzaileak herriko agendarekin zerikusia duten

entitate eta pertsonen gain, oro har, Elgoibarko herritar guztiak hartuko dituela kontuan esan dio Udal Gobernuak EHBilduri. EHBilduk "ezinbestekotzat" jo zuen Udalaren kultura politika zehaztea, Aita Agirreko kultur gunea behar bezala garatu dadin. Besteak beste, kultura alorrean dituzten lehentasunak eta zein eredu sustatu nahi duten zehazteko eskatu zuen koalizioak, eta baita sorkuntzak izango duen lekua zehazteko ere.



OIER GURRUTXAGA

Lanbidez irakaslea (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua da) eta afizioz musikaria da Oier Gurrutxaga. Punk-rock talde batean gitarra jotzen hasi zen 15 urterekin eta musika elektronikoari eskaini zizkion gero hainbat urte, harik eta flamenkoan murgiltzea erabaki zuen arte. Behin baino gehiagotan joan da Jerez de la Fronterara, Flamenkoaren iturrietatik edatera. Izan ere, musika sortzeko prozesua ulertzeko grifia izan du bidelagun urteotan Gurrutxagak. Ibilbide horretan ikasitakoak partekatu nahi ditu orain Elgoibarren antolatu dituen Musika Jardunaldi Interaktiboetan. (Argazkia: Ander Salegi)

“Martziano bat moduan sentitzen nintzen flamenkoa jotzen hasi nintzenean”

Nondik dator Musika Jardunaldi Interaktiboak antolatzeko ideia?

Azken urteetan gitarra elektrikitik flamenkora egin dudana bidaian dago, nolabait, jardunaldien sorburua. Izan ere, gitarra flamenkoan sarkontzeak armoniaz gehiago jakiteko gogoia piztu zidan. Hortik, era be-

rean, bluesera eta jazzera bueltatu nintzen. Ibilbide horretan ikasitakoa erakutsi nahi dut musika jardunaldietan. Era berean, azken urteetan hainbat musika aparailu elektroniko pilatu ditut: sanplerrak, Looper-ak, e.a. Musika talde bat ordezkatu dezakete aparailu horiek eta egokiak

dira inprobisazioa lantzeko.

Kontaguzu musikan egin duzun ibilbidea.

‘Nahitanahiez’ taldea sortu genuen lagun talde batek 15 urterekin. Izen bereko folk talde nafar bat zegoenez, ‘Kokoteraino’ izatera pasatu ginen. Oroitzapen onak dauzkatzat, horietako asko lausotuta egon arren. Sasoi hartan, Ehun Kilo kenduta, Elgoibarko eszena musikala hutsaren hurrengoa zen eta ez zegoen gurea moduko taldeak sortzeko baldintzarik, ez taldeentzako lokalik eta ez ezer. Taldekide baten izebak lagatako lokal batean hasi ginen gu. Ideia handirik izan ez arren, maketa bat grabatu genuen. Punk-rock doinuak jotzen genituen hasieran, baina Su Ta Gar, Metallica, Pantera eta antzerako taldeen eraginez, zeharo gogortzen hasi ginen. Egun batetik bestera metal talde bat bihurtu ginen. Elgoibarren egin ziren Kilometroetarako (1996an) disko bat grabatu zuten herriko hainbat talderen abestiekin eta gurea adibidez, abesti gogorra zen oso. Estilo aldaketa hark haustura ekarri zuen taldera, eta kide batek taldea laga zuen.

Orduan desegin zen taldea?

Bai, taldekidea galtzarekin batera entseatzeko lokal gabe geratu ginen-eta. Orduan hasi ginen Fundizioan entseatzeko. Fundizioaren bueltan jaio zen herriko musika mugimenduaren hazia izan ginen. Musika taldeek entseatu ahal izateko lokal egokiak zeudela konturatu ginen eta halaxe jakinarazi genion Udalarari. Lokal haiek pixka bat txukundu zituzten eta ‘Fundira’ hurbildu ziren hainbat musikazale eta musika talde, tartean Arima Beltzakoak.

Nola egin zenuen aurrera talderik gabe?

Taldea desegin ostean, gitarra jotzen ikastea zen nire asmoa, baina aurrera egin ahal izateko taldearen babesa beharrezkoa zela konturatu nintzen. Looper primitibo bat erosi nuen taldekideak ordezkatzeko, eta Groobe Sanpler bat gero. Tresna horiek bideratu ninduten musika elektronikorantz. Urte batzuk eman nituen musika elektronikorekin, eta disko bat ere grabatu nuen: Jaus Ob Sesión. Diskoa grabatzeari hilabete batzuk eskaini nizkion eta gogaitu samarturik bukatu nuen. Gainera konturatu nintzen melodiak egiteko orduan eta inprobisatzerakotan ez nekiela oso ondo zertan ari nintzen, intuizioz jokatzeko nuela. Hor hasi zen nire formazioa. Musika sortzeko prozesua ulertu nahi nuen eta gitarra flamenkoarekin hasi nuen bide hori.

“Fundizioaren bueltan jaio zen herriko musika mugimenduaren hazia izan ginen”

Zer aurkitu duzu flamenkoan?

Gauza asko ikusi eta ikasi ditut flamenkora egin dudako bidaian. Trebetasun teknikoak eskuratu ditut; pua alde batera laga eta gitarra bost hatzekin jotzen ikasi dut. Teknika horrek nortasuna eman dit gitarra elektrikoja jotzerakoan. Ez da errekurtsio soila, bide asko ireki dizkit.

Bidaia aipatu duzu. Flamenkora egin duzun bame bidaiaz gainera, Andaluziara ere joan zinen, flamenkoaren iturrietatik edatera?

Lehen bost urteetan ez nintzen Andaluziara joan. Manual bat eta Oscar Herrerok ateratako DVD bat erabiltzen nituen ikasteko. Martziano bat moduan sentitzen nintzen, hemen oso gutxik ezagutzen zutelako flamenkoa eta are gutxiagok estimatu. Gure nazionalismo honek kanpokoa gutxiestera eramaten gaitu. Eta zuzenean baztertzeko du Espai-

niarekin zerikusia badu. Flamenkoan murgiltzeko konpasa ulertzea da garrantzitsuena. Zailtasuna ez dago harmonian, eskuin eskua erabiltzeko teknikan baizik; eta, batez ere, konpasa ulertzean. Eurek, Andaluziako flamenko jotzaile handi guztiek, jaitzatik daukate konpasa hori barneratuta. Ikasi daiteke, baina urte asko behar dira naturaltasunez jotzeko. Hortaz, furgoneta hartu eta hegoaldera joatea erabaki nuen. Ez naiz damutu. Hilabete bakar batean hemen bost urtean baino gehiago ikasi nuen.

“Farruquitori eta niri gitarra bera gustatu zitzaigun”

Nora joan zinen zehazki?

Granadatik sartu nintzen flamenkoaren lurretan. Alhambra parean dagoen Sacromonte auzoan topatu nuen bila nabilen flamenko autentikoa. Koba moduko batzuetan dauden tabernetara joaten dira gitarrak eta bertan aritzen dira gitarra jotzen, baina ez dira kontzertuak. Eurekin jotzeko aukera ere badago. Extremoduroren abesti bat jo nuen han, *Me estoy quitando* izenekoa, eta hango ijitoei ez zien grazia handiegirik egin, heroinari buruzko abestia baita, eta han, Elgoibarren moduan, kalte handia egin zuen heroinak. Handik kanpora, turistei begira eginiko flamenkoa bakarrik dago Granadan. Benetako flamenkoak, flamenko jondo esaten diotenak, ez baita salgarria. Parte batek bai, *pallos festeros* deiturikoak alaiagoak eta ikusgarriagoak dira, baina solea, segidilla... tristeagoak eta sakonagoak dira horiek. Hala ere, ulertuz gero izugarriak dira. Siguriyak esaterako, plañideretan dute jatorria. Entierrotan negar egiteko kontratatzen zituzten emakume ijitoetan. Hor dago flamenkoaren esentzia. Granadan ez nuenez nahi nuena aurkitu, Jerez de La Fronterara (Cadiz, Espainia) jo nuen.

Jerezen topatu zenuen flamenko ‘autentikoa’?

Bai, horixe. Musulmanentzat La Meca litzatekeena da Jerez de La Frontera flamenko zaleentzat. Pentsa, flamenkoa dela-eta, beste inon baino bertakotagoak daude han ijitoak. Are gehiago, balio erantsi bat da ijitoa izatea. Badaude pare bat auzo, San Miguel eta Santiago, oso flamenkoak direnak. Han daude flamenkoaren iturriak, baina era berean, flamenkoaren nazioarteko dimentsioa ulertzeko leku hoberik ez dago. Flamenkoa gizateriaren ondarea dela ikusi nuen. Gitarra erosi nion luthierria da adibiderik argiena. Andrew Smith Oller dauka izena. Ama katalana, aita ingelesa eta flamenkoaz eta Jerezez maiteminduta dago. Bi gauza on uzartzen ditu daukan lanerako: anglosaxoiaren diziplina eta antzinako luthierrek lana egiteko zuten moduen ezagutza. Oraindik ez da oso ezaguna eta gitarra profesional batek balio ditzakeen 4.000 euroak baino merkeago saldu zidan niri bat. Barnizatu gabe zegoen bat jo nuen begiz, Farruquito dantzariari gustatu zitzaion berbera. Azkenean niri saldu zidan. Flamenkoak erakarritu mundu osoko jendeaz osatutako krisola da Jerez. Gustua ematen du. Izan ere, bertakoek ez dakitelako flamenkoa transmititzen, jakin bai, berezkoa dute-eta, baina ez dira irakasteko aproposak. Askok, demaseko gitarra joleak izan arren, ez dakite solfeorik, kodigo internazionalik, eta ez ezer. Kanpotik hara joan garen guztiok horixe nahi dugu baina, nola jotzen duten ikasi.

Maite Maiorak irabazi du Flysch Trail lasterketa

Errekorra ezarri du mendarorak

Flysch Trail mendi lasterketa jokatu zuten domekan Zumaian, eta emakumezkoetan Maite Maiora mendarorak irabazi zuen, eta gainera, errekorra ezarri zuen. Antxitxikari mendarorak 2:38:06 behar izan zuen 31,2 kilometroak osatzeko, eta ia hiru minutuan ondu zuen Oihana Kortazarrek 2012an jarritako errekorra. Lasterketa ikusgarria egin zuen Maite Maiorak. Egun ona izan zuen domekan, eta gozatu egin zuen sufritu baino gehiago: "Lasterketan oso ondo sentitu naiz, gero eta hobeto kilometroek aurrera egin ahala, eta, egia esan, pena eman dit bukatu denean". Espainiako Koparako puntuagarria zen Zumaiaiko Flysch Trail lasterketa, eta bertan lortutako puntuei esker, sailkapen nagusiko lehen postuan da Maiora, lasterketa bakarraren faltan.



Amaia eta Jone Loiolak irabazi dute nesken pala txapelketa



Joan zen barixakuan jokatu zuten nesken pala txapelketako finala. Inma Mugertza eta Olatz Txurrukak, Amaia eta Jone Loiola lehengusinen kontra jokatu zuten, eta azkenean, 22-21 irabazi zuten loiolatarrek. Emozio handiko finala izan zela adierazi dute antolatzaileek. Hamar bikotek hartu dute parte txapelketan, eta pozik agertu dira antolatzaileak. Irailean neska-mutilek osatutako bikotekako txapelketa antolatuko dute.

Binakako frontenis txapelketako finala gaur, Mendaron



Martitzenean jokatu zituzten frontenis txapelketako finalurrekoak Mendaroko Goñati frontoian, eta handik irten ziren gaurko finalerako bikoteak: Irene Elorza eta Amaia Mendikutek osatutako bikoteak Edurne eta Maite Olazabalen kontra jokatuko du. 19:00etan hasiko da norgehiagoka. Aurretik, 18:00etan umeen esku-pilota erakustaldia izango da.

June Loidi Sanloko jokalaria Finlandian jokatuko du, Espainiako selekzioarekin

June Loidik Espainiako selekzioaren probetan hartu du parte Sorian, eta Finlandian jokatuko den txapelketara joateko aukeratu dute. Uztailaren 25etik 27ra jokatuko dute txapelketa.

Bestalde, Sanloko Nerea Lizarraga, Ane Kortaberria, Jon Ortega eta Iñigo Elustondok Asturiasen jokatu zuten joan zen asteburuan Euskadiko eskubaloi selekzioarekin. Cangas del Narceako infantilen eskubaloi txapelketan hartu zuten parte. Neskak laugarren postuan sailkatu ziren, eta mutilek, berriz, bosgarren egin zuten.

Bi elgoibartarrek amaitu dute Ehunmiliak Ultratrail lasterketa

Goierriko Bi Handietan bederatzigarren egin zuen Gotzon Zulaika mendarorrek

Joan zen barixakuan jokatu zen Ehunmiliak ultratrail proba, eta aurten hiru elgoibartarrek hartu dute parte. Julen Azpiatzuk 36 ordu eta 17 minutuan amaitu zuen lasterketa, eta Edu Uribek 47 ordu eta 12 minutu behar izan zituen, 166 kilometroko ibilbidea osatzeko. Ekaitz Baskarnek 140. kilometro inguruan utzi zuen proba, lesio baten ondorioz.

Proba luzearekin batera, Goierriko Bi Handiak lasterketa ere jokatu zen, eta gure ordezkariak lan ona egin zuten: Gotzon Zulaika mendarorrek sailkapen nagusiko bederatzigarren postuan amaitu zuen proba, 12 ordu eta 33 minutuko denborarekin. Mikel Gorritik 18:30 denboran egin zuen lasterketa, Unai Etxeberriak 18:30ean eta Iban Fernandezek 18:39an. Ioritz Konde erori egin zen eta Txindokin utzi zuen lasterketa.



Edu Uribe, semeekin helmugan sartzen.



Azkaratera igoera jokatuko dute bihar, Maalako jaien barruan

Maalako jaien barruan Azkaratera Igoera jokatuko dute bihar, bizikletan zein korrika. Txirrindulariak 11:00etan irtengo dira Maalatik, eta korrikalariak, berriz, 12:00etan. 5,9 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute partaideek, Maalatik Azkarate gainera arte. Bizikletan, Aitor Hernandezek dauka errekorra 15:05ean, eta korrika berriz, David Slater britaniarrak 1981ean ezarritako denbora da onena: 20:40. Parte hartzeko sei euro ordaindu behar dira, eta honako tabernetan eman behar da izena: Txarriduna, Iriondo, Lanbroa, Sua, Viento Sur eta Pilon. Parte hartzen duten guztientzako salda eta txorizoa banatuko dute, eta sari banaketaren ostean, kontsumizio-baleak zozketatuko dituzte.



Wir leben Autos.

UDAKO AZTERKETA BEREZIA

Olio SINTETIKO aldaketa
+ olio-filtroa + aire-filtroa
+ 11 punturen azterketa
Gainera, autorako parasol bat opari



www.giauto.info



Eskaintza baliagarria abuztuaren 31ra arte iragarki hau eramanda.



PREZIO BAKARRA
GASOLINA ETA DIESELA
MARKA GUZTIAK
99€ BEZa barne

JARRAITU:  

www.giauto.info

Elgoibar Olaso Kalea, 25 20870 ELGOIBAR 943 74 40 12	Bergara Bº Olabarrena s/n 20670 BERGARA 943 76 33 44	Olaberria Bº Yurre, Poligono Karabi, s/n 20270 OLABERRIA 943 88 51 50	Anoeta Poligono Bentalde, 3 20270 ANOETA 943 65 00 49
--	--	---	---

REGISTRESE EN myOpel.es

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **663 371 016**
- Bi logelako etxea alokatzen dit Madalan. Eguzkitsua, igogailuarekin. ☎ **652 716 724**
- Pisua hartuko nuke alokairuan, ahal dela, hiru logelatakoa. Jabearakin harreman zuzena izatea eskertuko nuke. ☎ **671 289 584**

LAN ESKAINTZAK

- Pertsona arduratsua behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 17:30etik 21:00etara. ☎ **615 750 171 (14:00etatik aurrera)**

- Pertsona euskalduna behar da garbiketa eta sukaldaritza lanetarako. Elgoibarko jatetxe batean. ☎ **615 707 123**
- Asteburuetarako zerbitzaria behar du Mahats ardatdegia. CVA entregatu behar da tabernan, Kalegoen plazan. ☎ **943 743 089**

PARTIKULARRAK

- Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Irakasle natiboa. ☎ **658 729 234**
- Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. ☎ **680 319 002**

GARAJEAK

- Garaje marraduna alokatzen dut Santa Ana kalean. ☎ **660 841 767**

OSPAKIZUNAK

- 69an jaiotako elgoibartarrek bazkaria egingo dute irailaren 27an, Sigma jatetxean. Interesatuak 55 euro ordaindu behar dituzte, kontu korronte honetan: 3035 0007 22 0070065651

BESTELAKOAK

- Arazo ekonomikoak dituen familia batek ordenagailua behar du, Institutuan

ikasten ari den ikasle batentzat.

☎ **943 740 226**

- Katakumeak oparitzen ditut. Egoera onean eta ondo elikatuta. ☎ **648 513 757**



- Hiru metroko sofa bat salgai. Chaiselong-arekin eta arkoiarekin. Beltza. 600 euro. ☎ **662 107 700 (Nerea)**




TXIKIEGUNEKO MENUA

- * Meloi-brotxeta, urdalazpikoarekin
- * Entsaladilla errusiar-tartaleta
- * Okela-gisatua
- * Gazta-tarta
- * Kafea, urteko ardoa, ura eta sagardoa barne


20€

*Plater konbinatuak - Ogitartekoak
Hanburesak - Entsaladak - Pizzak - Anoak*

Sanbartolomeetarako enkarguak egin nahi badituzue
deitu telefono zenbaki hauetako batetara:
943 531 301 edo 627 941 261
San Roke 28, behea.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Jakin nahiko nuke zer diferentzia dagoen ondasunen banantze-erantzaren eta irabazpidezko ondasunen eraentzaren artean, eta ezkondu aurretik zer egin beharko nukeen, oraindik eraikitzen ari diren etxebizitza bat erosi nahiko nukeelako eta ondasunen banantze-erantzaren ezkondata ere, behin ezkondu ostean, etxebizitza hori neure ondasun pribatiboa izatea nahiko nukeelako.


Irabazpidezko ondasunak hauek dira: behin ezkondu ostean bikotekideetako edozeinek erosten dituen ondasunak edo beste irabazpidezko ondasun batzuk ordezkatzeko dituztenak, eta senarraren edo emaztearen lanari esker lortzen direnak. Ondasun pribatiboak, berriz, honako hauek dira: herentzian edo donazioan jasotakoak, beste ondasun pribatibo batzuen ordezkokoak edo eta ezkondu aurretik nork bereak zituenak.

Ondasunen banantze-erantzaren ezkontzen direnontzat ezkondata ez baleude moduan da, ondasunei dagokienez. Ezkontide-etako bakoitza nor bere ondasunen jabe izango da. Beraz, bietako norbaitek zorrak balitu zor horiei bere ondasunekin bakarrik egin ahal izango lioke aurre. Berez bietako inorenak ez diren ondasun horiek bakarrik dira biei, proportzio berean, dagozkienak.

Etxebizitza horren jabea zeuk bakarrik izan nahi baduzu, eskrituran hala jaso beharko duzu eta hala jasoko da Jabetza-erregistroan. Irabazpidezko ondasunak saldu edo hipotekatu nahiko balira, bien onspena beharko litzateke.

GOMENDIOA: Ondasunen banantze-erantzaren edo irabazpidezko ondasunen eraentzaren ezkontzea erabakitzen duzula ere, jakin dezazula edonoz aldatu ahal izango duzula, beti ere bikotekidearen onspena lortuz gero.


ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Consejo Fiscal de España
Asociación Española de Abogados
Instituto de Estudios Económicos
Laboral Societas



• Zorionak, **printzesa**, dagoeneko 6 urte potolo. Disfrutatuta eta muxu pilo-piloa, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Iria**, uztailaren 15ean 8 urte egin zenituelako. Ondo pasa gonbitean! Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **Amanda**, 11 urte egin dituzulako. Dagoeneko emakume handia egin zara! Aitak, amak, eta neba Jairok.



• Zorionak, **Tereso**, eta muxu handi bat astelehenean 4 urte beteko dituzulako. Ama, aita, Patxi, Elene, Paul eta beste guztien partez.



• Zorionak, **Ane**, zure hamargarren urtebetetzean, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Estibu**, hiliarren 28an 5 urte beteko dituzulako. Familia osoaren partez, muxu handi bat.



• 1, 2 eta 3! Gure etxeko printzesa txikixak 3 urte! Zorionak, **Irati**, eta patxo handi-handi bat etxekoan, eta bereziki, Noraren partez.



• 7 urte, **Pello**, zazpi! Txokomarrubizko mila muxu denon partez. Ondo pasa eta segi orain bezain jator. Mua, mua eta reketemua!




• Zorionak, **Izaro**, uztailaren 26an 8 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Laiene**, igandean 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, zure neba Haitzart eta Zugatzen partez.



• Zorionak, **Jurdana**, zure hamabigarren urtebetetzean. Muxu handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Galder**! Hiru belari tirakada familiako guztien partez, eta bereziki Eñauten partez. Segi horren alai eta iribarretsul.



• Zorionak, **gure etxeko printzesari**, abuztuaren 2an 10 urte egingo dituelako. Muxu handi bat, familiako guztien partez.




• Zorionak, **Saioa**, uztailaren 29an 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, denon partez.




• Zorionak, **Jon**, zure lehenengo urtebetetzean.



• Zorionak, **Eneko** Primeran pasatu genuen zure egunean!



• Zorionak, **Mikel**, azkenean 5 urte! Muxu handi bat.



• Zorionak, **Unai eta Uxue**, hiliarren 13an 2 urte bete zenituztelako. Muxu handi bana, familiakoan partez.



• Zorionak **gure poxpolinei**, hiliarren 26an 3 eta 11 urte beteko dituztelako. Patxo potolo bana.




• Zorionak, **Maria**, domekan 7 urte handi egingo dituzulako. Familiakoan, eta bereziki, Elene, Maialen eta Xabaten partez. Muxu!



• Zorionak, **Axi**! 5 urte potolo!. Zein azkar ari zaren hazten! Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **printzesa**! 7 urte jada! Jarraitu hain jator eta zoriontsu izaten. Ondo pasa bereziki, Iratxe, Iker eta Edurren partez.



• Zorionak, **Araz eta Iñigo**, 5 eta 15 urte egin dituzulako. Familia osoaren partez.



• Hainbeste urte elkarrekin pasa eta gero azkenean ezkontzea erabaki duzue! Zorionak, **bikote**, koadrilakoan eta familiakoan partez. Primeran pasatuko dugu!




• Zorionak, **pirata**, 4 urte beteko dituzulako. Ondo pasa, familiakoan partez.



• Zorionak, **Urtzi eta Haizea** uztailaren 29an 8 urte egingo dituzuelako. Ondo pasa! Muxu handi bat, etxekoan, eta bereziki, amamaren partez.




• Zorionak, **Ander eta Laura**! Eskerrak eman nahi dizkizuegu egun zoragarria pasatzeko eman zeninguten aukeragatik. Izan zoriontsu! Etxekoak.



• Zorionak, **amona eta Ibai**, aste honetan zuen urtebetetzea izan delako. Igandean ospatuko dugu! Muxu bana, etxekoan partez.



• Zorionak, **Intza**, uztailaren 30ean 7 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasa, eta muxu potolo bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **bikote**, uztailaren 16an eta abuztuaren 11n 1 eta 5 urte beteko dituzuelako.

18 barixakua

Musika

22:00 ZZ blues band

Kontzetua, Maalako parkean.

19 zapatua

Kirola

11:00 Azkaratera igoera

Maalatik.

23 eguaztena

Hitzaldia

19:00 Palestinako egoera

Hizlariak: Koldo Sagasti eta Javi Dominguez. Kultur Etxean.

24 eguena

Dantza ikuskizuna

22:30 Folklore Jaialdia

Olaizaga kiroldegian.

25 barixakua

Kirola

10:00 Sigmako Pilota

txapelketako finalak

Sigmako frontoian.

27 domeka

Sarzoateko erromeria

11:00 Meza

11:30 Salda eta txorizo

banaketa

Jarraian, Narbaiza eta

Meabebasterretxea

bertsolariak

12:30 Aizkolariak

Hodei Ezpeleta eta loritz

Gisasola. Ekitaldia Xabier

Arizabalaga eta Ekain

Iturralde trikitilariak girotuko

dute

31 eguaztena

Dantzaldia

19:30 Eguren orkestra

Maalako parkean.

Sallobenteko Jaiak

ABUZTUAK 8, BARIKAKUA

19:00 Kanpai-jotzea eta

suziriak, jaien hasiera

iragartzeko

Ondoren, errosarioa eta

meza, uzoko hildakoen alde

20:00 Bakallao jana, auzoko

aiton-amonei eskainia,

bereziki.

Afalostean, Bertsolariak

Uxue Alberdi eta Anjel Mari

Peñagarikano

23:00 Bolo saioak

23:30 Erromeria Fun & Go

taldearekin.

ABUZTUAK 9, ZAPATUA

16:30 Haurrentzako jolasak

Soinu-joleek girotuta

Jarraian, txokolate jana

Ondoren, Amoren zezentxo

eta pottokak

20:00 Emakumeen bolo

saioa

23:00 Musika

DJ festa, DJ Beatorekin.

Euskal musika eta

dantzarriak.

Gauerdian, bolo txapelketa

* Autobusa egongo da,

Maalatik auzora. 19:00etatik

7:00etara.

ABUZTUAK 10, DOMEKA

11:00 Meza

Segidan, sokadantza

Ondoren, salda eta txorizoa

12:00 Sanlotroia

- Sallobentetik Maalako

errotondaraino korrika

- Sallobentera itzulera, bizikletaz

- 3 bolo jaurtiketa. Botatako txirlo

bakoitzagatik, minutu bat

kenduko zaio aurrez eginiko

denborari.

14:30 Bazkaria

18:00 Herri kirolak

22:00 Bolo saioa

Ondoren, erromeria, Eztengiro

taldearekin.

Santumotz Jaiak

ABUZTUAK 3, DOMEKA

11:00 Meza Santumotz

lautadan

Ondoren, salda eta txorizoa

12:00 Sokatira

Aiastiako eta Idotorbeko

bizilagunen arteko lehia.

Segidan, bertsolariak

Ziarda eta Narbaiza. Tarteka,

Agirrebeña neba-arreba

trikitilariak girotuko dute

eguna.

14:30 Bazkaria

San Pedro jatetxean. Izena

emateko:

943 740 010 telefonora deitu.

Ondoren, bertsolariak eta

erromeria.

San Roke Jaiak

ABUZTUAK 15, BARIKAKUA

BEZPERA

17:00 Kanpai jotzea eta

suziriak

Jaiei hasiera emateko

18:30 Errosarioa Auzoko

baselizan

19:00 Emakumeen bolo

jaurtiketa

19:30 Untxi askatzea

Segidan, zezentxo eta poniak

22:00 Erromeria

Naiara Plaza eta Rakel

Pujana trikitilariak.

Jarraian, bolo saioa

ABUZTUAK 16, ZAPATUA

SAN ROKE EGUNA

9:00 Suziriak

11:00 Meza

Ondoren, Haritz dantza

taldearen emanaldia

Jarraian, txinga txapelketa

18:00 Haurrentzako jolasak eta

untxi askatzea

Ondoren, txokolate jana

Jarraian, zezentxoak eta poniak

22:30 Erromeria

Laja eta Larrañagarekin.

24:00 Bolo txapelketa

ABUZTUAK 17, DOMEKA

SAN ROKE TXIKI EGUNA

9:00 Suziriak

11:00 Meza

Auzoko hildakoen omenez

Ondoren, untxi askatzea

14:00 Bazkaria

Baltzola anaiek girotuta

18:00 Idi-demak

Ondoren, untxi askatzea

Gero, zezentxoak eta poniak

22:30 Erromeria

Baltzola anaiekin

01:00 Errifaren zozketa

* Abuztuaren 15ean, 16an

eta 17an afariak emango

dituzte zelaian eta elkartean

OHARRA

Abuztuaren 23an jasoko duzue San Bartolome jaietako ale berezia, eta abuztuaren 28an, jaietako argazkiz osatutako ale berezia kaleratuko dugu. Abuztuan **BARRENEKO** erredakzioa itxita egongo da.



FARMAZIAK

BOTIKA ORDUTEGIAK: 9:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK UZTAILA 9:00 - 22:00

18	Barrenetxea	3	Zabaleta	26	Garitaonandia
19	Ibañez	4	Barrenetxea	27	Zabaleta
20	Ibañez	5	Ibañez	28	Ettxeberria
21	Garitaonandia	6	Yudego	29	Ibañez
22	Ettxeberria	7	Barrenetxea	30	Garitaonandia
23	Fernandez	8	Fernandez	31	Garitaonandia
24	Yudego	9	Yudego		
25	Ibañez	10	Yudego		
26	Barrenetxea	11	Ibañez		
27	Barrenetxea	12	Barrenetxea		
28	Ibañez	13	Ibañez		
29	Garitaonandia	14	Garitaonandia		
30	Ettxeberria	15	Garitaonandia		
31	Ettxeberria	16	Fernandez		

GUARDIAK ABUZTUA 9:00 - 22:00

1	Yudego	17	Fernandez		
2	Zabaleta.	18	Garitaonandia		
	Goizez: Barrenetxea	19	Zabaleta		
		20	Ettxeberria		
		21	Zabaleta		
		22	Garitaonandia		
		23	Ettxeberria		
		24	Ettxeberria		
		25	Fernandez		

GUARDIAK IRAILA 9:00 - 22:00

1	Ettxeberria
2	Fernandez
3	Yudego
4	Zabaleta
5	Barrenetxea

GAUEKO GUARDIAK

22:00 - 24:00

Yudego

24:00 - 09:00

Azkue (Eibar),
Toribio Ettxeberria 4 (943 202 344)

**AIRE LIBREKO ZINEA,
KALEGOEN PLAZAN,
22:30EAN HANDIAN**

«Las brujas de
Zugarramurdi»
18, barixakua

«El llanero solitario»
19, zapatua

«La gran familia
española»
25, barixakua

«3 bodas de más»
26, zapatua

«Futbolin»
27, domeka

«Guadalquivir»
30, asteazkena



Uztailaren 18an udako
oporrak hartuko ditugu.
Gaztelekuak irailaren 10ean
zabalduko da berriro.
Ondo pasa uda!

Eskerrik asko ikasturte honetan
gurekin egon zareten guztioi!
Irailaren 8an
berriro ikusiko dugu elkar.
Ondo izan!



**MILAR
BIRE**

Ubitarte 11
943 741 487
bire@milar.es

LED Telebistak • SmartPhoneak

Tabletak • Telefonoak

**ZATOZ UDAKO GURE
KATALOGOAREN BILA**

Hozkailuak • Labeak • Garbigailuak

Indukzioa • Mikrouhin-labeak

Lehorgailuak • Aire egokitu aparailuak

Skainean...

JAIOTAKOAK



Lander Gasteain Ramos
Maiatzak 31
Ion eta Idurre



Elene Izagire Rejas
Ekainak 18
Javi eta Maider



Ibai Lopez Toledano
Ekainak 19
Luis Manuel eta Sandra

Mahdi Krimou
Ekainak 1
Jamal eta Btissame

Unax Olaso Bastida
Ekainak 13
Aritz eta Nerea

Gorka Sanchez Perez
Ekainak 24
Miguel Angel eta Nuria

EZKONDUTAKOAK

- Eneko Etxeberria eta Ainara Rodriguez Ekainak 14
- Xabier Garate eta Oihane Ubera Ekainak 14

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira
943 744 112 telefonora edo bidali e-postaz
barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

HILDAKOAK

Vicenta Valle Moya • 80 urte • Ekainak 1
Francisco Hidalgo Garmendia • 56 urte • Ekainak 4
Mari Carmen Eriz Agirregoikoa • 88 urte • Ekainak 9
Fernando Ruiz Lopez • 81 urte • Ekainak 16
Josefa Barrenetxea Imaz • 92 urte • Ekainak 19
Trinidad Pardo Fejoo • 69 urte • Ekainak 25

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak
Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295

URTEURRENAK

FELIX LODOSO BERGARETXE

eta

**MARIA BEGOÑA ANDONEGI
GURRUTXAGA**

*Gure ondotik joan zineten,
baina bizirik zaudete gure bihotzetan.
Oroimenean izango zarete beti gure artean.*

*Urteurreneko meza zapatuan, uztailaren 26an, izango da
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome
parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.*



2013ko abuztuaren 1ean hil zen



2010eko apirilaren 27an hil zen



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
Info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazla

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Gremioen GIDA





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



Abuztuan irekita

ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERD ORDUTEGIA



Doctor Antonio Murillo

Hezur Biosorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Urdakoko Unibertsitatea eta Madril.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Affonso X.a Unibertsitatea, Madril.**
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Urdakoko Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**
Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikari Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensea.**
Hortz-Estetikari Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**
Okklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



Astehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com